



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko apirilaren 8a

49. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legea aldatzekoa (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Nafarroako Kontseiluari buruzko Foru Lege proposamena. Foru Araubideko Batzordean izapidatzea (9. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Hezkuntzako Mahai Sektorialean negoziazio-prozesu bat abian jarri eta haren epeak jar ditzan, Nafarroan Hezkuntza Publikoaren Sistemaren kalitatea hobetzeko akordio berri bat lortze aldera. María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztu du (10. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bakearen kultura eta gatazken indarkeriarik gabeko kudeaketa susta ditzan, delituak egiteari aurrea hartzeko. Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (11. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jendaurrean gezurtatu ditzan tokiko zenbait hedabidek argitaratutako informazioak, zeinen arabera Nafarroako Gobernuak UGT erakunde sindikalari programa berriak esleitu baitizkio kontratazioaren babeserako eta laneko arriskuen prebentziorako arloetan. Carlos Couso Chamarro jaunak aurkeztu du (12. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Defentsa Ministerioarekin negoziata dezan, Ezkabako gotorlekuaren jabea den aldetik, fundazio bat sortu ahal izateko, eremu hori eta bere ingurua Memoriaren parke natural eta turistiko gisa erabili eta gozatzea kudeatuko duena. Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordean izapidetzea (14. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da prostituziora bideratutako emakumeen eta hauren trafikorik gabeko hirien sarean sar dadin Foru Komunitatea. Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordean izapidetzea (14. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aintzat har dezan bide publikoak -txirrindularien zirkulaziorako egokitzea bermatuko duten neurriak landu eta onesteko beharra. Garapen Ekonomikorako Batzordeak bazter utzia (15. or.).
- Adierazpen instituzionala, Ijitoen Herriaren Nazioarteko Eguna eta Nafarroako Ijitoen Erkidegoaren Eguna direla eta. Eledunen Batzarrak onetsia (15. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Errioxako Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko lankidetzahitzarmena, osasun-zerbitzuetan lankidetzan aritzekoa, berritzeari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, Hemoterapia Unitateari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (16. or.).
- Galdera, Nafarroako Unibertsitate Klinikak artatzen zituen Nafarroako Unibertsitateko langileak sare publikora aldatzeko epea aurreratzeari eta Nafarroako Unibertsitate Kliniketan artatua izateko irizpideari buruzkoa. Ana María Beltrán Villalba andreak egin du (17. or.).
- Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko enpresak “Industria 4.0” izenekoan murgiltzeari buruzkoa. Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, Nafarroako esnegileek egunero dauzkaten galerak konpentsatze aldera Nafarroako Gobernuak hartuko dituen neurriei buruzkoa. María Carmen Segura Moreno andreak egin du (18. or.).
- Galdera, INAren, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren eta berdintasuneko teknikariak dituzten toki erakundeen artean lan-mahai bat sortze aldera eta Berdintasunaren Nafarroako Behatokia sortze aldera Osoko Bilkurak onetsitako erabakiak zertan diren jakitekoa. María Teresa Sáez Barrao andreak egin du (19. or.).
- Galdera, untxi-ugalketak nekazaritzan eragindako kalteei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (20. or.).
- Galdera, kontsumitzaileen eskubideei dagokienez “Tasa arrosa” deiturikoak daukan eragina dela-eta Nafarroako Gobernua txosten bat egitera premiatzen duen erabakiari buruzkoa. Galdera idatzi bihurtzea (21. or.).
- Galdera, egoitza Nafarroan duten SICAVen egoitza fiskala aldatzeak foru erkidegoaren funtsei begira ekarriko duen kostuari buruzkoa. Osoko Bilkuran izapidetzea (21. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuko garajearen erabilerari buruzko arauak (22. or.).
- Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordeak Nafarroako Lurralde Politikaren Gizarte Kontseiluan izanen dituen ordezkariak izendatzea (23. or.).
- Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehia-keta bidez betetzeko (24. or.).
- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrariak aldi baterako kontratatze izangai-zerrenda bat egitekoa. 2. eta 8. oinarriak aldatzea (25. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legea aldatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 4an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2016ko martxoaren 23an hartutako erabakiaren bidez, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proiektua igorri dio Nafarroako Parlamentuari.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 158. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proiektuaren izapidetzea zuzenekoa eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia Osoko Bilkuraren esku jartzea.

2. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

3. Aipaturiko proiektua Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legea aldatzeko Foru Lege Proiektua

ZIOEN AZALPENA

I

Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legeak 5.1 artikuluan ezartzen duenez, herritar orok eskubidea dute Administrazio Publikoaren esku dagoen informazio publikoa eskuratzeko. 11/2012 Foru Legearen III. tituluak garatzen du eskubide hori, bai eta hartaz baliatzeko prozedura ere.

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legea gai honi buruzko oinarrizko legeria da, eta esparru zabala ematen dio informazio publikoa eskuratzeko eskubideari, pertsona guztiak haren titular eginez, eta erabiltzen ahalko da hura eskatzeko arrazoiak ematera behartu gabe. Informazio publikoa eskuratzeko eskubideaz baliatzea errazagoa izan dadin, legeak prozedura malgua ezartzen du, erantzuteko epe laburrarekin. Horrekin batera, aurkaratzearen arloan aukerako erreklamazioa sortzen du, bide judizialaren aurrekoa, errekurtsio administratiboen ordezkia; erreklamazio horien berri Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluak izanen du, erakunde independente berri batek. Eskumen autonomikoak ahalik eta gehien errespetatzeko, zioen azalpenen aipatzen den bezala, berariaz aurreikusten da kontseilu horrek eskumena izanen duela, soilik, horretarako hitzarmena izenpetu den autonomia erkidegoetan, eta, gainerakoetan, kontseiluak estatu mailan bere gain hartzen dituen eskumenak betetzeko izendatutako organo autonomikoaren esku geldituko dela gaia.

Horrela, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko Legearen 20.5 artikuluan xedatzen da informazio publikoa eskuratzearen arloan

emandako ebazpenen kontrako errekurtsioak zuzenean aurkezten ahal direla administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, horrek galarazi gabe Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluan aukerako erreklamazioa aurkeztea, 24. artikuluan aurreikusitakoa.

Lege horren 24. artikuluko 6. idatz-zatiak xedatzen duenez, erreklamazio horiek ebazteko eskumena Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluak du, salbu eta autonomia erkidegoek eskumen hori berariazko organo independente bati esleitzen badiote, legearen laugarren xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraikiz.

Eginkizun hori berariazko organo autonomiko independente bati esleitzen zaio, Nafarroako herritarrentzat berme gehien dituen bidea delako. Bazterturik gelditu da, beraz, Estatuko Administrazio Orokorrekin Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluari eginkizunak esleitzeko hitzarmena izenpetzeko aukera, abenduaren 9ko 19/2013 Legearen Laugarren Xedapen Gehigarriko 2. atalak ahalbidetzen duena, horrek ekarriko luke elako organo jurisdikzional zentralen esku uztea gatazkak ebazteko eskumena, eta gehiegizko zama litzatekeelako eskubideaz baliatu nahi duten herritarrentzat.

Bestetik, legealdi aldaketa izan denez, agerian geratu da Gardentasuni eta Gobernu Irekiari buruzko Foru Legearen 63. eta 64. artikuluetan arautu eta ezarri zen beharkizunean, ordainsariak, jarduerak, ondasunak eta kargu-uzte ondoko ordainsariak publiko egitekoan, alegia, zehaztasun falta dagoela publizitate horrek iraun behar duen epeari dagokionez, eta, foru lege horrek ezarritako publizitatearen funtsezko elementua denez, nahitaezko edukia izan beharko litzateke.

II

Foru legeak artikulua bakarra eta bi azken xedapen ditu.

Artikulu bakarrak Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legea aldatzen du. Aldaketak III. tituluaren eragina gehienbat, baina baita I. tituluaren ere, 5.3 a) artikuluan aitortzen baitio edozein herritarri foru lege honek gehitzen duen 33.bis artikulua berriak aipatzen dituen erreklamazioak aurkezteko eskubidea, eta 5.3 b) artikuluan jasotzen dena zuzentzen da, 69. artikulura jotzeari dagokiona alegia.

31. artikuluko 1. eta 4. idatz-zatiak informazio publikoa eskuratzearen arloan emandako ebazpenak aurkaratzeko sistema berriari buruzkoak dira.

III. tituluak III. kapitulu berria gehitzen du; aurkaratzeko sistema aldatu, eta aukerako erreklamazio bat sortzen du, bide judizialaren aurrekoa, errekurtsio administratiboaren ordezkoa, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko legerian xedatutakoari jarraikiz. Erreklamazio horien berri organo independente berri batek izanen du, Nafarroako Gardentasunaren Kontseilua izenekoak.

Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko Foru Legearen "Etika eta gardentasuna Gobernuaren ekintzan" izeneko VII. tituluko 63. eta 64. artikulua aldatzen dira, horietan arautzen den publizitateak, ordainsari, jarduera, ondasun eta kargu-uztearen ondoko ordainsariak, zenbateko epean iraun behar duen zehaztuta.

"Berme administratiboak, judizialak eta judizioz kanpokoak" izeneko VIII. tituluaren aldatzen da, III. tituluko III. kapitulu horretan ezarritako aurkaratze araubide berriarekin bat etortzeko; halatan, 67. artikulua zehazten du zein diren administrazio prozedura erkideari buruzko oinarriko araudian eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko Foru Legearen erregulatutako errekurtsio administratiboak –eta, kasu bada, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen legearen aurreikusitako administrazioarekiko auzi-errekurtsioa ere–, Administrazio Publikoari egozten ahal zaizkion eta Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko Foru Legearen parte-hartze eta lankidetzaren publikoaren arloan aitortzen dituen eskubideak urratzen dituzten egite edo ez-egiteen kontra bidezkoak direnak. 68. artikulua berariaz jasotzen du bere bi idatz-zatietan Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluan aurkezten ahal den erreklamazioa. 69. artikuluan, sozietate eta fundazio publikoaren eta beste entitate batzuen jarduketan kontra Administrazio Publikoan aurkeztu beharreko erreklamazioa arautzen du, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko Foru Legearen parte-hartze eta lankidetzaren publikoaren arloan aitortzen dituen eskubideak urratzen dituzten haien egite edo ez-egiteak direla eta. 70. artikulua gehitzen da, informazio publikoa eskuratzearen arloan aukerako erreklamazioaren sistema eransteko, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrekoa.

IX. tituluak Nafarroako Gardentasunaren Kontseilua sortu eta arautzen du, organo independente bat, publizitate aktiboaren arloan beharkizunak betetzen direla zaindu, eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea bermatuko duena.

Azken xedapenetako lehenean, azkenik, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen aldaketa jasotzen da.

Artikulu bakarra. Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legearen aldaketa.

Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legea honela aldatzen da:

Bat. 5. artikuluko 3. idatz-zatiko a) letra honela idatzita geldituko da:

“a) Foru lege honek parte-hartze eta lankidetzaren publikoen arloan aitortzen dizkien eskubideak urratzen dituzten egite eta ez-egiteen kontrako errekurtsoak aurkeztea bide administratiboan, eta 33.bis artikuluan informazioaren arloan aipatzen dituen erreklamazioak jartzea.”

Bi. 5. artikuluko 3. idatz-zatiko b) letra honela idatzita geldituko da:

“b) 68. artikuluko aipatutako kexa jartzea beren eskubideak babesteko, manu horretan aurreikusitako moduan.”

Hiru. 26. artikuluko 1. idatz-zatiak testu hau izanen du:

“1. Informazio publikoa eskuratzeko eskaerak kasuko informazioa duen unitate organikoari edo entitateari bidali beharko zaizkio, eta hark haien berri eman beharko dio Gobernu Irekiaren arloko eskumena duen unitate administratiboari, eta artikuluko honetan xedatutakoaren arabera tramitatuko dira. Administrazio Publikoaren eremuan, informazio eskaerak ebazteko eskumena kasuan kasuko informazioa duten unitateetako hierarkia-buruek izanen dute, baina, betiere, ebazteko eskumenak esleituak izan beharko dituzte, egitura organikoak arautzen dituzten arauekin bat.”

Lau. Honela idatzita agertuko da 31. artikuluko 1. idatz-zatiaren bigarren paragrafoa:

“Ebazpenak baimena ematen badu informazioa ematearen aurka azaldu den hirugarren bat ukitzen duen informazio bat osorik edo partez eskuratzeko, informazioa eskuratzeko ahalko da, bakar-bakarrik, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezteko epea halakorik formalizatu gabe bukatu ondoren, edo informazioa jasotzeko eskubidea berrestearren alde ebatzi ondoren. Informazioa eskuratzeko eskubidearen etendura berariaz adieraziko da ebazpenean.”

Bost. 31. artikuluko 4. idatz-zatiak testu hau izanen du:

“4. Informazio publikoa eskuratzearren arloan emandako ebazpenek bide administratiboa amaitzen dute, eta haien kontrako errekurtsoa jar daiteke zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdik-

zioan, 33.bis artikuluan aurreikusitako aukerako erreklamazioa jartzea galarazi gabe.”

Sei. III. tituluari III. kapitulu berri bat gehitzen zaio, testu honekin:

“III. KAPITULUA

Informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen bermeak

33. bis artikulua. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluari erreklamazioa aurkeztea.

1. Informazio publikoa eskuratzearren arloan emandako ebazpen espresuen nahiz presuntziozkoen kontra erreklamazioa aurkezten ahalko da, aukerakoa, Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluan, administrazioarekiko auzien bidean aurkaratu aurretik.

2. Kapitulu honetan aurreikusitako erreklamazioa errekurtso administratiboaren ordezkia izanen da, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko legerian xedatutakoarekin bat.

3. Erreklamazioa hilabeteko epean aurkeztu beharko da aurkaratutako egintza jakinarazi eta biharamunetik hasita, edo isiltasun administratiboko ondorioak izan eta biharamunetik hasita.

4. Erreklamazioa indarreko legerian errekurtsoaren arloan xedatutakoari jarraikiz tramitatuko da. Informazioa eskuratzeko ukatzeko oinarria hirugarrenen eskubideak edo interesak babestea denean, erreklamazioa ebatzi aurretik entzuteko trami- tea emanen zaie ukituak izan daitezkeen pertsonen, haien eskubideen alde komeni dena alega dezaten.

5. Ebazpena eman eta jakinarazteko gehiengo epea hiru hilabetekoa izanen da, eta, epe hori iraganik, erreklamazioa ezetsi dela ulertuko da.

6. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluak emandako ebazpenak, barnean dituzten datu pertsonalak kendu ondoren, bitarteko elektronikoetan argitaratuko dira erregelamenduz ezartzen den moduan, interesdunei jakinarazi ondoren.

7. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluak emandako egintzak administrazioarekiko auzien bidean aurkaratzen ahal dira.”

Zazpi. 63. artikuluari 3. idatz-zati bat gehitzen zaio, testu honekin:

“3. Artikulu honetan aipatzen den publizitateak, ordainsari, jarduera eta ondasunenak, kargu publikoaren agintaldia amaitu edo kargua uzten duenetik bi urte iragan arte iraunen du.”

Zortzi. 64. artikulua aldatzen da. Hauxe da testu berria:

“64. artikulua. Kargua utzi ondoko ordainsarien publizitatea.

1. Nafarroako Gobernuko kide ohiei eta Administrazio Publikoko goi kargudun izandakoei ordaintzen zaizkien prestazio ekonomikoak, azaroaren 4ko 19/1996 Foru Lege horretan ezarrita daudenak, publiko eginen dira, lege horretan ezartzen denari jarraikiz.

2. Artikulu honetan aipatzen den publizitateak, prestazio ekonomikoenak, kargu publikoaren agintaldia amaitzen denetik edo kargua uzten duenetik bi urte iragan arte iraunen du.”

Bederatzi. VIII. titulua aldatzen da. Hauxe da testu berria:

“VIII. TITULUA

Berme administratiboak, judizialak
eta judizioz kanpokoak

67. artikulua. Errekurtsoak.

1. Inork uste badu Administrazio Publikoari egozten ahal zaion egintza batek edo ez-egite batek foru lege honetan parte-hartze eta lankidetzatza publikoen arloan aitortzen zaizkion eskubideak urratu dituela, administrazio prozedura erki-deari buruzko oinarriko araudian eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko Foru Legean araututako errekurtsoak jartzen ahalko ditu, eta, kasua bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen legean aurreikusitakoa.

2. Jartzen diren gora jotzeko errekurtsoak lehendakaritza gaietako eskumena duen departamentuko kontseilari titularrak ebatziko ditu, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 57.2.f) artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

3. Parte-hartze eta lankidetzatza publikoen arloan jarritako errekurtso administratibo guztien gaineko txostena eman beharko du Gobernu Irekiaren arloko eskumena duen unitateak.

68. artikulua. Kexa Nafarroako Arartekoaren aurrean.

1. Foru lege honen III. tituluan informazio publikoa eskuratzeko aitortzen den eskubidea herritarrek erabiltzea osorik edo partez galarazi edo mugatzen duten Administrazio Publikoaren organoen ebazpen espresuen edo presuntziozkoen aurka Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluan jar daitekeen erreklamazioa deuse-

tan galarazi gabe, informazio publikoaren eskatzaileak kexa bat bidaltzen ahalko dio Nafarroako Arartekoari, betiere informazio hori eskuratzeko eskubidea galarazi edo mugatu baldin bazaio, Nafarroako Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legean xedatutakoari jarraikiz.

2. Nafarroako Arartekoaren esku-hartzeak ez ditu etenen bidezkoa den erreklamazioa edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko epeak, Nafarroako Arartekoari buruzko Foru Legean ezarri bezala.

69. artikulua. Administrazio Publikoaren aurreko erreklamazioak, sozietate eta fundazio publikoen eta beste entitate batzuen jarduketan aurka.

1. Herritar batek uste badu foru lege honen 2. artikuluan aipatutako sozietate publiko, fundazio publiko edo zuzenbide publikoko entitate baten egite edo ez-egite batek foru lege honetan parte-hartze eta lankidetzatza publikoen arloan aitortzen zaizkion eskubideak urratu dizkiola, baldin eta egitea edo ez-egitea erakunde horrek eginkizun publikoetan jardutearen edo haren zaintza administratiboaren pean dauden eginkizunetan jardutearen ondorio bada, aukera izanen du zuzenean erreklamazio bat aurkezteko, Administrazio Publikoaren zein organo eskudunen agindutara jarduten duen, haren aurrean.

2. Organo eskudunak behar den ebazpena eman eta jakinarazi beharko du. Ebazpen horrek bide administratiboa amaituko du, eta, erreklamazioa haren erregistroan sartu eta hiru hilabeteko epean, betearazlea izanen da zuzenean.

3. Ebazpena betetzen ez bada, Administrazio Publikoko organo eskudunak lehenengo idatzatiaz aipatutako entitateei eskatuko die, ofizioz edo eskatzaileak eskatuta, ebazpena bete dezaten alderdi guztietan.

70. artikulua. Erreklamazioak informazio publikoaren arloan.

Herritar batek uste badu Administrazio Publikoari edo sozietate edo fundazio publikoei edo beste entitate batzuei egozten ahal zaient egite edo ez-egite batek informazio publikoa eskuratzeko bere eskubidea urratu duela, III. tituluko III. kapituluan araututako erreklamazioa aurkeztu ahalko du, eta, kasua bada, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen legean aurreikusitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa.”

Hamar. IX. titulua gehitzen da. Hau da testua:

“IX. TITULUA

Nafarroako Gardentasunaren Kontseilua

71. artikulua. Nafarroako Gardentasunaren Kontseilua.

1. Nafarroako Gardentasunaren Kontseilua sortzen da, Nafarroako Foru Komunitateko gardentasunaren arloko kontrolerako organo independente gisa, publizitate aktiboko betebeharrak betetzen direla zaintzeko eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea bermatzeko.

2. Kontseiluak objektibotasunez eta profesionaltasunez jardunen du bere eskumenak betetzean, antolamendu juridikoari men eginez eta erabateko independentzia funtzionalarekin administrazio publikoetatik.

3. Foru Administrazioarekiko lotura gardentasunaren arloko eskumena duen departamentuaren bitartez gauzatuko da.

72. artikulua. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluaren eginkizunak.

1. Hauek dira Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluaren eginkizunak:

a) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta Nafarroako Foru Komunitateko sektore publikoko gainerako entitateek, baita bere lurraldean eta kasuko sektore publikoan sarturik dauden toki entitateek ere, informazio publikoa eskuratzearen arloan emandako berariazko edo presuntziozko ebazpenen kontra aurkezten diren erreklamazioen berri izatea, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen laugarren xedapen gehigarrian xedatutakoarekin bat.

b) Gardentasunaren arloan Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko Foru Legea garatzen duten edo arlo horrekin loturik dauden arau proiektuei buruzko aginduzko txostenak ematea.

c) Gardentasuna bete behar duten entitate eta erakundeek arlo horretan dituzten beharkizunak noraino aplikatu eta betetzen dituzten ebaluatzea; beharkizun horiek hobeki betetzeko gomendioak ere egiten ahalko ditu.

d) Nafarroako Parlamentuan memoria bat aurkeztea bere lanei buruz eta Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko Foru Legean ezarritako xedapenen betetze mailari buruz.

e) Prestakuntza eta sentsibilizazio jarduerak sustatzea.

f) Antzeko izaera duten organoekin elkarlanean aritzea berezkoak dituen gaitetan.

g) Lege edo erregelamendu mailako arauen bidez emandako gainerako eginkizunak.

2. Erregelamenduz ezarriko dira Kontseiluak artikulua honetan xedatutakoa garatzeko behar dituen antolaketa eta funtzionamendu arauak.

73. artikulua. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluaren osaera.

1. Nafarroako Gardentasunaren Kontseilua lehendakariak eta kide hauek osatuko dute:

a) Nafarroako Parlamentuko lau kide, Nafarroako Parlamentuan dauden taldeekiko aniztasun irizpidea aintzat hartuta izendatutakoak.

b) Gardentasunaren arloko eskumena duen departamentuaren ordezkari bat.

c) Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren hiru ordezkari.

d) Nafarroako Kontseiluaren ordezkari bat.

e) Kontuen Ganberaren ordezkari bat.

f) Nafarroako Arartekoaren ordezkari bat.

g) Nafarroako Unibertsitate Publikoaren ordezkari bat.

Kasu bakoitzean, kasuan kasuko kidea izendatzeko prozedura dagokion erakundeak edo organoak gauzatuko du, eta horrek, gainera, ordezkari bat izendatzen ahalko du, titularra eri, kanpoan, edo aldi baterako ezintasun egoeran dagoenako.

2. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakari titularra Nafarroako Gobernuak izendatuko du foru dekretu bidez, lau urteko epe ez luzagarrirako, izen eta gaitasun profesional handiko pertsonen artean. Hautatzea Nafarroako Parlamentuak egingen du gehiengo osoz, Parlamentuko taldeek proposatutako hautagaien artean aukeratuta.

Berak hala eskatuta, heriotzaren ondorioz edo epai bidez ezgaitu ondoren utziko du kargua. Bai eta Nafarroako Parlamentuak gehiengo osoz hala eskatzen duenean ere, haren eginkizunen ez bete-tze larriagatik, zereginak betetzeko izendatu ondoren sortutako ezgaitasunagatik, bateraezintasunagatik edo dolozko delitua dela-eta zigorra jasotzeagatik.

Idatz-zati honetan aipatzen den agintaldia ahi-tuta, une horretan karguan ari denak eginkizunetan jarraituko du izendapen berria egin arte.

3. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko kideak lau urterako izendatuko ditu Nafarroako

Gobernuak, gardentasunaren arloko eskumena duen departamentuko titularrak proposatuta, kasuan kasuko entitateek edo erakundeek hautatu ondoren.

Beraiek hala eskatuta, heriotzaren ondorioz edo epai bidez ezgaitu ondoren utziko dute kargua. Bai eta proposatu dituen entitateak edo erakundeak gehiengo osoz hala eskatzen duenean ere, haren eginkizunen ez betetze larriagatik, zereginak betetzeko izendatu ondoren sortutako ezgaitasunagatik, bateraezintasunagatik edo dolozko delitua dela-eta zigorra jasotzeagatik.

Agintaldia ahituta, une horretan karguan ari denak eginkizunetan jarraituko du izendapen berria egin arte.

4. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko kide izateak ez dakar erabateko dedikaziorik, ez eta inolako ordainsaririk jasotzeko eskubiderik ere. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria izatea bateraezina da Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko Foru Legearen 61. artikuluan aipatzen diren karguekin, bai eta alderdi poli-

tiko batekoa izatearekin ere, izendatu aurreko 4 urteak barne.”

Azken xedapenetan lehena. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen aldaketa.

Aipatu foru legearen 57. artikulua 2. idatzatiko f) letraren edukia hau izanen da aurrerantzean:

f) Lehendakaritza arloko eskumena duen departamentuko kontseilari titularra, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren kontseilarien mailatik beherako edozein organok edo haren menpeko erakunde publikoek parte-hartze eta lankidetzaren publikoen arloan emandako egintza guztiei dagokienez, baldin eta egintza horiek Gardentasuna eta Gobernu Irekia arautzen dituen Foru Legean araututa baldin badaude.”

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Nafarroako Kontseiluari buruzko Foru Lege proposamena.

FORU ARAUBIDEKO BATZORDEAN IZAPIDATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 4an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

2016ko martxoaren 14ko Mahaiaren erabakiaren bidez, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki zen Nafarroako Kontseiluari buruzko Foru Lege proposamenaren gaineko irizpena emateko ahalmena Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Batzordearen esku uztea.

Kontuan harturik 2010. urtean Foru Hobetzean Nafarroako Kontseiluari buruzko aipamena sartu zela, halatan foru erakundeen eskema osatuz, egokiagoa da Foru Araubideko Batzordeak eman dezala Nafarroako Kontseiluari buruzko Foru Lege proposamenaren gaineko irizpena.

Horrenbestez, ondokoa ERABAKI DA:

1. 2016ko martxoaren 14ko Mahaiaren erabakia aldatzea, zeinaren bidez xedatzen baitzen Nafarroako Kontseiluari buruzko Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetu zedin, Erregelamenduko 152.1 eta 153. artikuluetan ezarritako berezitasunak kontuan hartuta, eta foru lege proposamen horri buruzko irizpena emateko ahalmena Foru Araubideko Batzordeari esleitzea.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Hezkuntzako Mahai Sektorialean negoziazio-prozesu bat abian jarri eta haren epeak jar ditzan, Nafarroan Hezkuntza Publikoaren Sistemaren kalitatea hobetzeko akordio berri bat lortze aldera.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Hezkuntzako Mahai Sektorialean negoziazio-prozesu bat abian jarri eta haren epeak jar ditzan, Nafarroan Hezkuntza Publikoaren Sistemaren kalitatea hobetzeko akordio berri bat lortze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkar-teak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Gaur egun, Nafarroako irakaskuntza publikoko irakasleak hitzarmen kolektiborik gabe daude. Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak eta irakaskuntza publikoko CCOO, STEE-EILAS, CSIF, AFAPNA eta UGT sindikatuen ordezkariak Nafarroan irakaskuntza publikoaren kalitatea hobetzeko sinaturiko 2007-2011 itunaren indarraldia 2011n amaitu zenez geroztik, ez dago inolako akordiorik.

Aipatu itunaren aplikazioan zailtasunak izan ziren, eta 2008ko ekainean “garapen-akordio” bat negoziatu behar izan zen, haren ezarpenaren egutegia arautzeko. Hala eta guztiz ere, 2001eko maiatzeko akordioko baldintzak mantendu eta sendotu egin ziren, ikastetxeetarako eta irakasleentzat lortu ziren hobekuntzei zegokienez.

Aipatu ituneko neurri batzuk 2007-2009 urte bitartean garatu ziren, baina ez ziren inoiz sartuak izan ikastetxeen antolaketa-araudian (erregela-mendu organikoa) ez eta plantillak arautzeko araudian ere (irakasleen lanaldiei eta ordutegiei buruzko foru dekretua).

Arautze falta horrek, 2010etik aurrera irakaskuntza publikoan izan diren murrizketa drastikoekin batera, desdoitze oso nabarmenak sortu ditu ikastetxeen funtzionamenduan, baita irakasleen lan-baldintzak okertu dituzten aldaketa batzuk ere.

2011z geroztik izandako akordio horiek hobekuntza kuantitatiboak eta kualitatiboak ekarri zituzten irakaskuntza publikoko baliabideetarako, abiapuntua izanik irakasleei aitortzea hezkuntzalanaren funtsezko osagaia direla. Horien inguruan kokatzen ziren irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko neurriak, irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuan efizientzia handiagoa lortzeko.

Hezkuntza Departamentuak jadanik bost urte eman ditu arau-esparru eskas eta akastun batekin funtzionatzen. Zalantzarik gabe, hori eragin txarra izaten ari da Nafarroako irakaskuntza publikoko sistemaren egonkortasunean eta garapenean.

Horregatik guztiagatik, Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkar-teak honako erabaki proposamena aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Hezkuntzako Mahai Sektorialean negoziazio-prozesu bat urgentziaz abian jarri eta haren epeak jar ditzan, Nafarroan Hezkuntza Publikoaren Sistemaren kalitatea hobetzeko akordio berri bat lortze aldera, arrakastaz heldu ahal izateko gaur egun gizarteak hezkuntzari planteatzen dizkion erronkei eta, halaber, irakaskuntza publikoko ikastetxeek eta irakasleek galdu dituzten baldintzak berreskuratzeari.

Iruñean, 2016ko martxoaren 22an

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bakearen kultura eta gatazken indarkeriarik gabeko kudeaketa susta ditzan, delituak egiteari aurrea hartzeko.

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA ETA PODEMOS-AHAL DUGU PARLAMENTU-TALDEEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita bakearen kultura eta gatazken indarkeriarik gabeko kudeaketa susta ditzan, delituak egiteari aurrea hartzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

“Justizia konpontzaile” deritzona, definizioaren arabera, prozedura bat da, zeinaren bidez delitu batean diren biktimak eta arau-hausleak elkarrekin parte hartzen duten arau-hauste penalarik dagozkion alderdiak ebazten; oro har, erraztaile edo bitartekari jarduten duen pertsona baten laguntzaz. Nafarroan, 2007. urteaz geroztik, badago

esperientzia pilotu bat, arau-hauslearen eta biktimaren arteko bitartekotza penalekoa, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren babespean, eta justizia konpontzailearen printzipioetan kokatua. Programa hori aitzindaria da Espainian, eta praktikara eraman nahi ditu Europako aginduak, herritarrengandik gertuago dagoen justizia bat bilatzen duten zuzentzaruen bidez onetsitakoak.

Ildo horretatik, justizia konpontzailearen abiapuntua da zinez bilatzea ukitutako pertsona guztien eta haiek dauden gizartearen beharrezan. Oinarrizko printzipioak ditu borondatezkotasuna, konfidentzialtasuna, inpartzialtasuna, neutraltasuna, elkarrizketa, pribatutasuna, askatasuna, segurtasuna eta zinezkotasuna.

Gatazkek ebazteko bide horren onura nagusiak honako hauek dira:

Biktimari ahalbidetzen dio bere erreparaziorako irtenbide asegarriak proposatzea, egoera ebazteko moduari buruzko erabakian parte hartzeko aukera duenez gero.

Akusatuak beren erantzukizuna onartzearen aurrez aurre ipiniak dira; era horretan, jardule aktibo bihurtzen dira, biktimarekiko eta erkidegoarekiko dituzten betebeharrekin konprometituak.

Erkidegoak ere prozesuan parte hartzen duenez, epe ertainean gizarte helduago, kritikago eta parte-hartzaileago bat sortzen da.

Zigor-sistemak erantzun judizialak individualizatzeko tresna erabilgarri bat lortzeaz gain, aukera ere eskuratzen du antolamendu juridiko onberago baten moduan agertzeko, gure gizartearen bilakaerari egokituago dagoena. Justizia konpontzailean, ondasun juridikoen babesa

dela-eta zigor zuzenbideak dituen helburuak indar-
turik gertatzen dira, eta areagotu egiten dira
prebentzio-eginkizunak, orokorrak zein bereziak.
Gainera, prozesuak arinago egiten diren neurrian,
lagungarria izaten da justizia-erakundeei zama
kentzeko eta justiziaren irudi hobea eskaintzeko.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki propo-
samenak aurkezten ditugu, Osoko Bilkuran ezta-
baidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gober-
nua premiatzen du:

1. Bakearen kultura eta gatazken indarkeriarik
gabeko kudeaketa susta ditzan, delituak egiteari
aurre hartzeko eskura dituen baliabide guztien
bidez.

2. Bitartekaritza-zereginen eragiten duten
arauak egin ditzan, eta halaber bitartekarien erre-

gistro publiko bat ezar dezan, aipatu zereginen
nork jardun dezakeen, eta zer baldintzatan, argitu-
ko duena.

3. Gaur egungo zigor arloko bitartekaritza gai-
nerako jurisdikzioetara heda dezan, eta bereziki
susta ditzan bitartekaritza zibila eta merkatari-
tzakoa, jurisdikzio guztiek pareko zerbitzua eta
koherentea eman diezaieten herritarrei.

4. Arlo estrajudizialean, eskola-bitartekaritzako
programak heda eta susta ditzan, eta udalerriekin
bitartekaritza komunitarioko programa pilotuak
koordinatuz.

Iruñean, 2016ko martxoaren 21ean

Foru parlamentariak: Patxi Leuza García,
Maiorga Ramírez Erro, Rubén Velasco eta José
Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jendaurrean gezurtatu ditzan tokiko zenbait hedabidek argitaratutako informa- zioak, zeinen arabera Nafarroako Gobernuak UGT erakunde sindika- lari programa berriak esleitu baitizkio kontratazioaren babeserako eta laneko arriskuen prebentziorako arloetan.

CARLOS COUSO CHAMARRO JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko
apirilaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Ba-
tzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen,
besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Couso Cha-
marro jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez
Nafarroako Gobernua premiatzen baita jendaurre-
an gezurtatu ditzan tokiko zenbait hedabidek argi-
taratutako informazioak, zeinen arabera Nafarroa-
ko Gobernuak UGT erakunde sindikalari programa
berriak esleitu baitizkio kontratazioaren babesera-
ko eta laneko arriskuen prebentziorako arloetan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziale-
an argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Eskubide Sozialetako Batzordean
izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea
bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren
aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxi-
kitako foru parlamentari Carlos Couso Chamarro
jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xeda-
tuaren babesean, honako mozio hau aurkezten
du, Eskubide Sozialetako Batzordean eztabaidatu
eta bozkatzeko.

2016ko martxoaren 7an, Nafarroako UGTren
idazkari nagusi Lecumberri jaunak egindako adie-
razpen batzuk jaso zituzten zenbait hedabidek.
Adierazpen horien arabera, erakunde sindikal hori
25-30 langile inguru kontratatzeraz zihuan, “kontra-
tazioaren babesa” eta “laneko arriskuen preben-
tzioa” arloetako programa berriak egiteko; izan
ere, Nafarroako Gobernuak programa horiek eslei-
tu omen dizkio Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren
bitartez, hartara bere ezintasuna onartuta eskue-
ran dauden zerbitzu publikoen bidez programa
horiek burutzeko, eta ulertuta erakunde hori
(UGT) hobeki prestatuta dagoela programa horiek
kudeatzeko eta garatzeko, giza baliabide eta
baliabide material hobeto edukitzeagatik.

2016ko martxoaren 9an, Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeak ahozko galdera bat aurkeztu zuen Nafarroako Parlamentuaren erregistroan, Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako kontseilari Laparra jaunari zuzendutakoa, Mahaian eta Eledunen Batzarrean izapidetzeko, kontseilaria mintza zedin argitaratutako eta Lecumberri jaunaren ahotan jarritako informazio horien egiazkotasunaz, eta, horien egiazkotasuna berretsiz gero, Parlamentuaren Osoko Bilkuran aferaren xehetasunak azal zitzaizkien: Lecumberri jaunak aipatutako programak zehazki zein ziren, bai eta programa horiek finantzatzeko zer kontusail baliatuko diren ere. Izan ere, programa horiek berez ez daude jasota 2016rako onetsitako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan, eta, gainera, urratu egiten dituzte “aldaketaren” lau indar politikoek ezarritako akordioak eta konpromisoak, erakunde sindikalekin eta enpresa-erakundeekin hitzarmen izendunak arian-arian deuseztatzen joatekoak, gisa horretako programak enplegu planen esparruan kudeatzeko. Eta, argitaratutako informazioak egiazkoak ez izanez gero, kontseilariak auziari buruz egokien deritzen azalpenak eman ditzan.

2016ko martxoaren 10ean (egun bat geroago), Geroa Bai parlamentu-taldeak gai horri berari buruzko ahozko galdera bat aurkeztu zuen erregistroan, baina modu generikoagoan idatzia. Bada, galdera hori, geroago aurkeztutakoa, izan zen Nafarroako Parlamentuaren 2016ko martxoaren 17ko Osoko Bilkuran izapidetu zena, Mahaian eta Eledunen Batzarrean izapidetze-jardun arautuak aplikatu izanaren ondorioz.

Edozein modutan ere, Geroa Bai parlamentu-taldeak planteatu zion auzia Eskubide Sozialetako kontseilari Laparra jaunari, Nafarroako Parlamentuak 2016ko martxoaren 17an egindako Osoko Bilkuran. Laparra jaunaren erantzuna izan zen Nafarroako Gobernuak UGTri ez dizkiola inolaz ere esleitu tokiko hedabide idatziek argitaratutako eta kontseilariaren ahotan jarritako informazio horietan adierazitako programa berriak, eta, horrenbestez, gezurra direla argitaratutako informazio horietan jasotako beste zertzelada batzuk ere.

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du jendaurrean gezurtatu ditzan tokiko zenbait hedabide idatzik 2016ko martxoaren 7an argitaratutako informazioak, zeinen arabera Nafarroako Gobernuak UGT erakunde sindikalari programa berriak esleitu baitizkio kontratazioaren babesarako eta laneko arriskuen prebentzioarako arloetan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Nafarroako UGTko idazkari nagusiari jendaurrean exiji diezaion jendaurrean argitu eta zuzendu ditzan aipatutako egun horretan berarenak balira bezala argitaratu ziren informazio faltsuak; izan ere, gaur arte ez du halakorik egin, eta horrek lagundu egiten du Nafarroako Gobernuak arlo horretan darabiltzan politikak desitxuratzen eta horiei buruzko ika-mika sozial funsgabea sortzen.

Iruñean, 2016ko martxoaren 23an

Foru parlamentaria: Carlos Couso Chamarro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Defentsa Ministerioarekin negoziata dezan, Ezkabako gotorlekuaren jabea den aldetik, fundazio bat sortu ahal izateko, eremu hori eta bere ingurua Memoriaren parke natural eta turistiko gisa erabili eta gozatzea kudeatuko duena.

HERRITARREKIKO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANETAKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordean izapidetu dadin Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Defentsa Ministerioarekin negoziata dezan, Ezkabako gotorlekuaren jabea den aldetik, fundazio bat sortu ahal izateko,

eremu hori eta bere ingurua Memoriaren parke natural eta turistiko gisa erabili eta gozatzea kudeatuko duena. Mozioa 2015eko abenduaren 28ko 47. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da prostituziora bideratutako emakumeen eta haurren trafikorik gabeko hirien sarean sar dadin Foru Komunitatea.

HERRITARREKIKO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANETAKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordea izapidetu dadin Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita prostituziora bideratu-

tako emakumeen eta haurren trafikorik gabeko hirien sarean sar dadin Foru Komunitatea. Mozioa 2016ko martxoaren 18ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da aintzat har dezan bide publikoak txirrindularien zirkulaziorako egokitzea bermatuko duten neurriak landu eta onesteko beharra.

GARAPEN EKONOMIKORAKO BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da aintzat har dezan bide publikoak txirrindularien zirkulaziorako egokitzea bermatuko duten neurriak landu eta onesteko beharra."

Legebiltzarreko Garapen Ekonomikorako Batzordeak, 2016ko apirilaren 5ean egindako bilku-

ran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2016ko martxoaren 4ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2016ko apirilaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, Ijitoen Herriaren Nazioarteko Eguna eta Nafarroako Ijitoen Erkidegoaren Eguna direla eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko apirilaren 4an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

"1. Nafarroako Parlamentuak uste du Nafarroako ijitoen erkidegoa lehentasun gisa hartu behar dela agenda politikoan, Europako erakundeen eta Ijitoak Gizarteratzeko 2012-2020 Estrategia Nazionalaren gomendioari jarraituz, lehentasunezko xedetzat ezarriz besteak beste osasunaren, hezkuntzaren, enpleguaren eta etxebizitzaren arloetako desberdinkeriak murriztea eta arreta berezia jarritz gazte eta emakume ijitoengan, tratu berdintasunetik eta diskriminazio-ezetik abiatuta.

2. Nafarroako Parlamentuak deritzo behar adina baliabidez hornitu behar direla ijitoentzako

planak eta estrategiak, beharrezkoak eta nahikoak diren intentsitatearekin eta iraunaldiarekin ezarri ahal izan daitezkeen. Plan eta estrategia horiek, halaber, ijitoen erkidegoaren parte-hartze aktiboa erraztu behar dute.

3. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Europako Parlamentuaren ohartarazpen batekin, zeinak baitio ezen, ijitoen auziari heltzeko, beharrezkoa izan den delako ukitutako alde guztiek mentalitate berri bat izatea eta tratamendu politiko berri bat ematea, zorrotza, kontsekuentea, iraganeko akatsak ekidinen dituen eta manipulaziorik onartuko ez duena."

Iruñean, 2016ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, Errioxako Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko lankidetzaren hitzarmena, osasun-zerbitzuetan lankidetzan aritzekoa, berritzeari buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, Errioxako Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko lankidetzaren hitzarmena, osasun-zerbitzuetan lankidetzan aritzekoa, berritzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik Errioxako Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko lankidetzaren hitzarmena berritzeko, bi osasun-zerbitzuen bitarteko kooperaziorako?

Iruñean, 2016ko martxoaren 21ean

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Galdera, Hemoterapia Unitateari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, Hemoterapia Unitateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Hemoterapia Unitatea zergatik jarri da Odol eta Ehun Bankuan?

Iruñean, 2016ko martxoaren 21ean

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, Nafarroako Unibertsitate Klinikak artatzen zituen Nafarroako Unibertsitateko langileak sare publikora aldatzeko epea aurreratzeari eta Nafarroako Unibertsitate Kliniketan artatua izateko irizpideari buruzkoa.

ANA MARÍA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Unibertsitate Klinikak artatzen zituen Nafarroako Unibertsitateko langileak sare publikora aldatzeko epea aurreratzeari eta Nafarroako Unibertsitate Kliniketan artatua izateko irizpideari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Unibertsitate Klinikak artatzen zituen Nafarroako Unibertsitateko langileak sare publikora aldatzeko epea zergatik aurreratu da maiatzaren 1era? Erabaki hori zergatik ez zaie dagokienei zuzenean jakinarazi? Sei patologia ezarri dira patologia larri gisa, Nafarroako Unibertsitate Kliniketan artatzen jarraitzeko, eta Oinarrizko Osasun Laguntzako profesionalak erabakiko dute gainerakoekin zer egin. Zer irizpide baliatu da hori horrela izan dadin?

Iruñean, 2016ko martxoaren 23an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko enpresak “Industria 4.0” izenekoan murgiltzeari buruzkoa.

GUZMÁN MIGUEL GARMENDIA PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Foru Komunitateko enpresak “Industria 4.0” izenekoan murgiltzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-talderari atxikitako Guzmán Garmendia Pérez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Azkenaldi honetan zenbait ekitaldi egin dira Nafarroan, ‘4.0 industria’ izenekoaren kariatara. Horietako batean, Manuel Ayerdi lehendakariordeak horri buruz esan zuen “jauzi kualitatibo bat” ekarriko duela “enpresen balio-katearen antolamenduari eta kudeaketari dagokienez”.

“Industria adimentsu” horrek, zeinak bide luzea egin baitu jada Espainiako gainerako lurraldeetan eta, jakina, mundu osoan, Administrazioaren baliabideak industria hori eraiki eta garatzera guztiz ipintzera behartzen du, eta orobat eskatzen du haren eskutik joatea, haren hazkunde sozialari aldi berean laguntzeko; bereziki, enpleguaren eta hezkuntzaren arloetan.

Nafarroako Gobernuak bere burua prest ikusten al du Nafarroako Foru Komunitateko enpresak “4.0 industria” izenekoan murgiltzeari heltzeko?

Iruñean, 2016ko martxoaren 23an

Foru parlamentaria: Guzmán Garmendia Pérez

Galdera, Nafarroako esnegileek egunero dauzkaten galerak konpentsatze aldera Nafarroako Gobernuak hartuko dituen neurriei buruzkoa.

MARÍA CARMEN SEGURA MORENO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Carmen Segura Moreno andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako esnegileek egunero dauzkaten galerak konpentsatze aldera Nafarroako Gobernuak hartuko dituen neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeko Mari Carmen Segura Moreno andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Gobernuak zer neurri hartuko ditu Nafarroako zenbait esnegilek orain dela hiru hilabete baino gehiagotik hona egunero dauzkaten galerak konpentsatzeko?

Iruñean, 2016ko martxoaren 23an

Foru parlamentaria: María Carmen Segura Moreno

Galdera, INAIren, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren eta berdintasuneko teknikariak dituzten toki erakundeen artean lan-mahai bat sortze aldera eta Berdintasunaren Nafarroako Behatokia sortze aldera Osoko Bilkurak onetsitako erabakiak zertan diren jakitekoa.

MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako galdera, INAIren, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren eta berdintasuneko teknikariak dituzten toki erakundeen artean lan-mahai bat sortze aldera eta Berdintasunaren Nafarroako Behatokia sortze aldera Osoko Bilkurak onetsitako erabakiak zertan diren jakitekoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Teresa Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xeda-

tuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Zertan dira edo nolako betetze-maila izan dute Nafarroako Parlamentuak 2016ko otsailaren 25ean egindako Osoko Bilkuran onetsitako bi erabaki hauek?

“7. Nafarroako Parlamentuak eskatzen du lan-mahaia osa dadin INAIren, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren eta berdintasuneko teknikariak dituzten toki erakundeen artean, Berdintasunaren aldeko eta Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nafarroako Udalen Sarea garatzeko eta emakumeen aurkako indarkeriari buruzko tokiko protokolo-eredu bat toki entitateetarako garatzeko. Eredu hori koordinatu egingen da emakumeen kontrako indarkeria kasuen arreta eta prebentzioa eraginkortasunez koordinatzeko erakundearteko akordioarekin.

8. Nafarroako Parlamentuak eskatzen du INAIren mende Berdintasunaren Nafarroako Behatokia sor dadin”

Iruñean, 2016ko martxoaren 13an

Foru parlamentaria: María Teresa Sáez Barrao

Galdera, untxi-ugalketak nekazaritzan eragindako kalteei buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, untxi-ugalketak nekazaritzan eragindako kalteei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeko eta Nafarroako Gorteetako kide Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Azken urte hauetan untxi-ugaritzea izan da, Nafarroako Erriberan batez ere, eta horrek kalte egiten dio nekazaritzari. Batez ere, soroetan, landatze berrien lursailetan eta ureztatze-azpiegiturretan.

Nekazariak eta egoera hau gertatzen ari den herrietako barrutiak kudeatzen dituzten ehiztari-elkarteek neurri ezberdinak hartu izan dituzte.

Hori guztia, Nafarroako Gobernuan ingurumenaren eta nekazaritzaren arloan eskudun den departamentuarekin koordinatuta eta, batzuetan, departamentu horrek emandako nahitaezko baimenarekin.

Aste hauetan, berriro ere geratu dira agerian untxi-ugaltzeak nekazaritzari egiten dizkion kalteak.

Hori guztia dela-eta, Nafarroako Gobernuak honako galdera hauei emandako erantzuna jakin nahi da:

– Nafarroako Gobernuak ba al daki zein diren nekazariak eginiko eskaera berriak, gehiegizko untxi-ugaltzearen ondorioz haien soroetan izandako kalteen ondoriozkoak?

– Gobernuak zer deritze urteotan untxi-ugalketa kontrolatzen saiatzeko eginiko urratsei?

– Neurri berriak hartzearen alde al dago?

– Gai honen ardura duen departamentuak inolako bilerarik egin al du nekazariekin, udalekin eta ehiztari-elkartekin, egoeraren jarraipena egiteko? Zehatz bedi noiz eta norekin, eta zer ondorio atera diren.

Corellan, 2016ko martxoaren 31n

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, kontsumitzaileen eskubideei dagokienez “Tasa arrosa” deiturikoak daukan eragina dela-eta Nafarroako Gobernua txosten bat egitera premiatzen duen erabakiari buruzkoa.

GALDERA IDATZI BIHURTZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 4an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

María Teresa Sáez Barrao andreak aurkezturiko idazkia ikusita, non eskatzen baitu galdera idatzi bihurtzea Osoko Bilkuran erantzuteko aurkeztu zuen ahozko galdera, kontsumitzaileen eskubideei dagokienez “Tasa arrosa” deiturikoak daukan eragina dela-eta Nafarroako Gobernua txosten bat egitera premiatzen duen erabakiari buruzkoa, ERABAKI DA:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela galdera idatzi bihurtu dela kontsumitzaileen eskubideei dagokienez “Tasa arrosa” deiturikoak daukan eragina dela-eta Nafarroako Gobernua txosten bat egitera premiatzen duen erabakiari buruzko ahozko galdera, zeina 2016ko martxoaren 11ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, egoitza Nafarroan duten SICAVen egoitza fiskala aldatzeak foru erkidegoaren funtsei begira ekarriko duen kostuari buruzkoa.

OSOKO BILKURAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Osoko Bilkuran izapidetu dadin Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak aurkezturiko galdera, egoitza Nafarroan duten SICAVen egoitza fiskala aldatzeak foru erkidegoaren funtsei

begira ekarriko duen kostuari buruzkoa. Galdera 2016ko apirilaren 1eko 45. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuko garajearen erabilerari buruzko arauak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 4an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarreko legelari nagusiak Nafarroako Parlamentuko garajearen erabilerari buruzko arau-proposamen bat aurkeztu du, Foruzaingoak adierazitako jarraibideen arabera.

Erregelamenduko 37.1.1 artikularekin bat, honako hau ERABAKI DA:

1. Nafarroako Parlamentuko garajearen erabilerari buruzko arauak onestea. Hona testua:

1. Baimendutako pertsonak.

Aparkalekua erabiltzeko baimena foru parlamentarietara dute, bai eta legelari nagusiak adierazitako Legebiltzarreko langileek ere.

Parlamentarien ibilgailuak gidatzen dituzten gidariak ere izanen dute baimena, baldin eta kasuko parlamentariak horretaz ohartarazten baditu Legebiltzarrearen egoitza zaintzen duten foruzainak. Gidari-bizkartzain horiek beheko solairura igo beharko dute, poliziaren aitzinean beren burua identifikatu, eta eraikinetik berehala irten, ate nagusitik.

Garajea erabiliko duten pertsona baimenduek inprimaki bat beharko dute, zeinetan jasoko baitira haien identifikazio pertsonala, zer izaera duten –parlamentaria, gidari-bizkartzaina edo Legebiltzarrearen zerbitzuko langilea– eta ibilgailuaren marka eta modelo, kolorea eta matrikula.

2. Baimendutako ibilgailuak.

Garajearen pertsona baimenduen ibilgailuak aparkatzen ahalko dira, baldin eta bete beharreko inprimakian jasota agertzen badira. Inprimakian, behar izanez gero, ibilgailu bat baino gehiago agertzen ahalko da.

Mahaiak parlamentu-taldeari edo foru parlamentarien elkarteari eta Legebiltzarreko langileei esleitutako aparkalekuetako batean aparkatuko dira ibilgailuak.

3. Baimenen kontrola.

Foruzaingoak, Legebiltzarrearen egoitzaren eta foru parlamentarien segurtasunaren arduraduna den aldetik, garajera sartzeko kontrol eta segurtasun sistema kudeatzearen arduraduna izanen du; halatan, baimendutako pertsona eta ibilgailuen altak eta bajak sartuko ditu sisteman. Halaber, unean unean egoki deritzen kontrol-neurriak hartzen ahalko ditu.

Kasu berezietan –esaterako, osoko bilkurak edo ekitaldi instituzionalak–, Foruzaingoak zilegi izanen du sarbide-kontrolerako sistema bertan behera uztea ibilgailuen sartzeko edo irtetea errazte aldera, baldin eta beharrezkoa den segurtasuna mantentzen dela uste badu.

4. Garajearen erabilera-denbora.

Garajea eguneko hogeita lau orduetan erabiltzen ahalko da, bai bertan sartzeko, bai bertatik irteteko. Baimendutako pertsonak Parlamentutik oinez irtetea erabakitzen badu, ate nagusitik irten beharko du.

5. Garajeko aparkalekuen banaketa.

Mahaiak proportzionalki banatuko ditu garaje-ko hogeita hamasei aparkalekuak parlamentu-taldearen eta foru parlamentarien elkartearen artean, haien kide-kopuruaren arabera. Gainontzeko bost aparkalekuak Lehendakariarentzat, legelari nagusiarentzat, Foruzaingoarentzat, Prentsa, Argitalpen eta Protokolo Zerbitzuko buruarentzat eta zerbitzu anitzentzat izanen dira.

Taldeei eta elkartei dagozkien aparkalekuak haien beraiek banatuko dituzte beren kideen artean, eta Legebiltzarreko zerbitzuei dagozkienak, berriz, legelari nagusiak esleituko ditu.

Aparkaleku horiek kasuko siglak edo izenak azaltzen dituzten idazkunen bidez adieraziko dira.

6. Nafarroako Parlamentuko garajera sartzeko eta bertatik irteteko jarraibideak.

Garajeko aldapako atea FORUZAINGOAK irekitzen du kamera-aretoetik, behin ziurtatuta ibil-

gailuaren gidaria, txartelaren erabiltzailea edo bizi-kletaren erabiltzailea pertsona baimendua dela eta bidea oztoporik gabe dagoela.

Ibilgailuen gidariak honako arau hauek errespetatu beharko dituzte:

- Txartela kanpoko edo barneko irakurgailutik pasatu.

- Atea irekitzen bada ere, EZ jarri abian harik eta semaforoa berde jarri arte; izan ere, litekeena da beste erabiltzaile bat sartze- edo irtete-manio-bra egiten ari izatea.

- Ez sartu edo irten semaforoa gorri badago.

- Ez irten aurreko ibilgailuaren atzetik, erabiltzaile-txartela irakurgailutik pasatu eta semaforoa BERDE dagoela ziurtatu gabe.

- Kontuz gidatu, gehienez ere 10 km/h-ko abiaduran.

- Garajeko zirkulazio-norabidea eta seinale horizontalak errespetatu.

Bizikleta-erabiltzaileek honako arau hauek bete beharko dituzte:

- Interfonotik abisatu beti, identifikatzeko.

- Kontuz sartu eta irten, ibilgailuen balizko sarrerei eta irteerei adi.

- Aldaparen eskuinaldetik jaitsi, oinez.

- Txirrindularientzat, atea ireki besterik ez da eginen; semaforoak gorri egonen dira beti.

- Txirrindulariak beste gidari batzuekin batera egokitzen direnean, ibilgailuari utziko diote lehenago pasatzen, eta aldapa hutsik dagoenean sartuko edo irtenen dira, arestian ezarritako moduan.

7. Jakinarazpena eta indarrean sartzea.

Arauok parlamentu-taldean eta foru parlamentarien elkarteen eledunei, Foruzaingoari, legelari nagusiari eta Legebiltzarreko zerbitzaburuei jakinaraziko zaizkie, eta onesten direnean sartuko dira indarrean.

Araun eguneratzea Mahaiak eginen du, egoki deritzonenean, eta nolako aplikazioa izan duten ikusirik.

Araun aplikazioa dela-eta sor litezkeen zantzak Parlamentuko Lehendakariak edo legelari nagusiak ebatziko ditu.”

2. Arau hauek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezten agintzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Batzordeak Nafarroako Lurralde Politikaren Gizarte Kontseiluan izanen dituen ordezkariak izendatzea.

Nafarroako Parlamentuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Batzordeak, 2016ko apirilaren 5ean egindako bileran, erabaki hau hartu zuen:

“**1.** Ondoko pertsonak izendatzea Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Batzordearen ordezkari Nafarroako Lurralde Politikaren Gizarte Kontseiluan:

Unai Hualde Iglesias jauna

David Anaut Peña jauna

2. Erabaki honen berri ematea Nafarroako Gobernuari, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 2016ko apirilaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko

Onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda

Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdiko 4. oinarriko 1. idatz-zatian ezarritakoaren arabera –deialdia bertako lehendakariaren 2006ko martxoaren 4ko ebazpenaz onetsi zen–, behin eskabideak aurkezteko epea bukaturik, bidezkoa da deialdian onartu eta baztertu diren izangaien behin-behineko zerrenda onetsi eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Horrenbestez, lehendakaritza honek ERABAKI DU:

Lehena. Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdian onartu eta baztertu diren izangaien behin-behineko zerrenda onestea. Hona zerrenda hori:

a) Onartuak:

Inor ere ez.

b) Baztertuak:

Albistur Lecea, Javier Fernando

Deialdiko 2.1.c) oinarrian ezarritako baldintza ez betetzeagatik.

Bigarrena. Xedatzea, deialdiko 4. oinarriko 2. idatz-zatian ezarritakoaren arabera, behin-behineko zerrenda Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara eman eta hurrengo bost egun naturaleko epean interesdunek erreklamazioak aurkeztu ahal izanen dituztela.

Hirugarrena. Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Erakundearen web orrian argitara dadila xedatzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 5ean

Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrariak aldi baterako kontratatzeko izangai-zerrenda bat egitekoa.

2. eta 8. oinarriak aldatzea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 4an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Zerbitzu Orokorretako buruak txosten bat aurkeztu du, zeinetan proposatzen baita Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrariak izateko aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrenda bat egiteko hautaprobaren deialdiaren 2. eta 8. oinarriak aldatzea; deialdi hori Mahaiaren 2016ko otsailaren 29ko Erabakiaren bidez onetsi zen.

Adaketa horren helburua da deialdiaren administrazio-prozedura kudeatzea erraztea, eta Zerbitzu Juridikoek ontzat eman dute.

ERABAKI DA:

1. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrariak izateko aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrenda bat egiteko deialdiaren 2.1 eta 8.1 oinarriak aldatzea onestea; deialdi hori Mahaiaren 2016ko otsailaren 29ko Erabakiaren bidez onetsi zen. Hona hemen oinarri horien testu berria:

2.1. oinarria.

«d) Euskaraz dakiten administrariaren kontratazioan ere parte hartu nahi duten izangaiantzat: Nafarroako Gobernuaren EGA titulua izatea, edo Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bate-ratuko C1 mailaren baliokidetzat aitortua dagoen ziurtagiria, edo behar den hizkuntza-eskakizuna zehazten duen proba bat gainditzea, Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duen otsailaren 10eko 29/2003 Foru

Dekretuan ezarritakoarekin bat. Proba hori hautaprobaren ondoren egingen da.»

8.1 oinarria.

«8.1. Proba kalifikatu eta egon daitezkeen berdinketak ebatzi ondoren, epaimahaiak deialdia gainditu duten izangaien zerrenda, lortutako puntuazioaren hurrenkeraren arabera, argitaratuko du www.parlamentodenavarra.es webgunean, "Transparencia/Listas y convocatorias Personal/Convocatorias públicas de personal/Ejercicio 2016" izeneko atalean, eta Parlamentuko iragarki-oholean.

Eskabidean hori adierazi badute, hautapoba gainditu duten izangaiek euskararen jakintza-mailaren proba egingen dute. Horren lekua, eguna eta ordua Nafarroako Parlamentuaren webgunean (www.parlamentodenavarra.es) "Transparencia/Listas y convocatorias Personal/Convocatorias públicas de personal/Ejercicio 2016" izeneko atalean argitaratuko dira.

Euskarari buruzko probaren emaitzak kalifikatu eta gero, epaimahaiak emaitzak argitaratu, eta behin betiko zerrenda bidaliko dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, hori onetsi dezan, hautaketa-prozesuaren espediente osoarekin batera.»

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin, bai eta Parlamentuaren webgunean eta iragarki-oholean ere.

Iruñean, 2016ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Ainhua Aznárez Igarza

